

# Pierre Blanc

LUR BANAKETEI SO



## LURRA, GATAZKEN OINARRI

"Bakeak nau interesatzen, horregatik naiz geopolitikari begira. Geopolitikaz interesatzen garenean biolentzia dinamikez interesatzen gara. Ekialde Hurbila eta Mediterraneoan zentratzen naiz. Lurraren eta uraren gaiak zein heineta-raino determinanteak diren ohartzen gara lurralde hauei begiratzean. Baina funtsean, munduko beste eskualdeetan ere dinamika berak ageri dira; nire sustraian oihartzuna duten dinamikak, laborari semea izaki"

## "Lurraren kontzentrazioa dakar liberalizazioak"

Munduan izandako gatazkek usu puntu komuna dute oinarrian: lurren banaketa txarra. Bakar batzuen eskuetan kontzentratuak kausitzen delako laborarien lan tresna. Ohartarazte honek balio du Afrikako, Ekialde Hurbileko, Hego Ameriketako zein Euskal Herriko gatazka sozio-ekonomikoak ulertzeko. Historiari begiratu eta gaur egungo errealitatea analizatzen dabil Pierre Blanc unibertsitarioa, beti egoera hobetu eta gatazka politikoak saihestu nahian.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

### Lurren jabetzea eta gosetea eskutik doaz.

2008az geroztik areagotuz doan *Land grabbing*-az gehien hunkia den kontinentea dugu Afrika eta justu, goseteaz gehien hunkia dena ere dugu. Ez da baitezpada lotura zuzenik, gosetea urrunagotik datorrelako. Baina, korrelazio hau ezin dugu gorderik utzi, batez ere gosearen arazoa konpontzeko Afrikan inbertitzen dabilatzala dioten parean. Ezin ditugu hori erraten utzi, ez delako horrela. Lekuko laborantza garatuz dezakegu arazoa konpondu, laborariak lagunduko dituzten laborantza politika nazionalen bidez.

### Ohidura zuzenbidea bost axola zaie inbertitzaile hauei.

Kolonizaziorik egon ez den Afrikako herrietan du ohidura zuzenbideak presente segitzen. Estatu modernoek usu haien esku hartu dituzte lurrak, laborariak ohidura zuzenbidearen bidez segitzen dituzte erabiltzen. Kontua da estatu horiek ez direla beti akasgabeak eta inber-

titzaileei saldu edota ematen dizkietela eremuak. Larria da, presio handia dutelako kanpoko inbertitzaileek.

### Kolonizatuak izandako beste eremu guztiak ere ditu Afrikak.

Magrebera iritsi ziren frantses kolonoak, hegoko Afrikara nederlandarrak eta britainiarrak, sartu eta lur guztiak bereganatu zituzten. Oraindik gaur egun sendi dira ondorioak. Begira Hego Afrikara, lurraren gaia sekulan baino gehiago Cyril Ramaphosa presidentearen agenda politikoan da. 1994ko bozketak irabazirik, Nelson Mandelak ez zuen lur erreforma erradikalik pasa nahi ukan, kohesio nazionala zaintzeko. Denbora pasa da eta ondorengo presidentek ez dute Mandelak zeukan onespina. Lurren banaketa justu bat bideratzeko hautua egin du Ramaphosak, justizia bera delako jokoan. Kontua da ez dela nolanahika egin behar. Begira Zimbabwen, bortxaz bideratu dute eta gosetean hondoratu da herria.



BAIONAN BURUTU ALTERNATIBA EGUNETAN EGON ZEN PIERRE BLANC, IAZKO URRIAN.

### Zein da bide egokia?

Afrikarren lur eskubidea segurtatu behar dela erratea oso ongi da, jabetza tituluak banatza oso ongi da, sosegua ekartzen dietelako laborariei. Baina historiari so egin behar zaio, iraganeko irakaspenei! Laborarien alde doan laborantza politika handinahirik ez bada marrazten, goiz ala berant salduko dituzte haien lurak, laguntzarik gabe zail legia zaielako irautea.

### Autoritarismoaren ala iraultzen oinarrian usu dugu lurra.

Momentu agropolitikoak deitzen ditut gertakizun horiek. Oraindik oso landa eremuko eta nekazaritzako jendarteetan hori horrela da. Afrikan, Erdialdeko Amerikan zein Asian, lurraren banaketa txarra daukagun lurraldeetan. Alde batetik, lur-oligarkiak haien interes ekonomikoak babestu nahian dabilta eta bestetik, lurra eskuratu ezinean dabil-tzan laborarien protestak ditugu. Adibide asko dugu, baita European ere, Espainian ala Italian demagun, gehiegikeria autoritario anitz uler dezakegu lurraren prismari begiratzuz.

### Politikaren zein erlijioaren haritik begiratu ohi diogu Ekialde Hurbilari.

**Alta hor ere lurra dago usu oinarrian.** Oso gaizki banatua izan da lurra Ekialde Hurbilean, bereziki otomanoek XIX. eta XX. mende hastapenean lurra pribatizatzear gain, bakar batzuen esku metatu zuten. Egipton ere, otomanoek bereizi arren, lur bipolarizazio ikaragarria gertatu zen 1952eko iraultza denboran. Iranen berdin. Hots, hainbat gertakizun politiko ezagunek egoera hau dute oinarrian. Haatik, badira herri batzuk, Libia edo Palestina demagun, non ez den horrelako erreformarik egon. Lur banaketarik egon ez izanak oraindik ondorio politikoak dauzka.

### Demokraziarik ez da lur banaketa justurik ez bada.

Lurren banaketaren eta egonkortasun politikoaren artean lotura zuzena dagoela erakusten digu historiak. Begira AEBei eta Kanadari, demokrazia garatu ahal izan dute paisaia sozio-agrario nahiko berdinazale batean. AEBetan izan zen lehen aldian baldintzen berdintasunaz harriturik agertu zen Alexis de

Tocqueville teorialaria. Berdintasuna lurren banaketari ere lotua zen. Hori diot argi utziz bazterturikoak kontutan hartu gabe egin dutela; gogoan ditut beltzak, izena zikinduak edota sarraskituak izan diren populu autoktono guztiak. AEBetako egonkortasun demokrati-koaz ari garenean, demokrazia zuriaren egonkortasunaz ari gara.

### Gure errealtateari ere so egin diezaioGUN.

Mundu guztian sendi den lurren kontzentrazioa pairatzen dugu. Batetik, geroz eta laborari gutiago dugu, lanbide-rako bokazio txikia delako eta bestetik, inbertitzea merezi duen aktibo erren-tagarri bihurtu delako lurra. Egonkortasunik eza ez da hain inportantea politikoki, Frantzian adibidez biztanleria aktiboaren %2-3a delako laborari. Baina arazoa hor da.

### Lurren kontzentrazioa nola saihestu?

Oso zaila da, baina bai ala bai lurraren merkatua erregulatu behar da, lurraren kontzentrazioa dakarrelako liberalizazioak. ●